

XABIER LETE (idazlea)

“Sinestuna otoitz egiten duena da, eta Jainkoarekin liskarrean dabilena”

Juan Luis Zabala / Urnieta

“Bizitza baten esperientzia nagusiak” islatu ditu Xabier Letek *Egunsentiaren esku izoztuak* (Pamiela) liburuan, poeta baten hizkeraz idatzitako errelato txikien bidez.

“Galeraren zentzu bat” da nagusi Xabier Letek (Oiartzun, Gipuzkoa, 1944) bere liburu berriko poemetan ohiko gai nagusiei (bizitza, heriotza, maitasuna, adiskidetasuna, aberria, haustura, edertasuna...) egiten dien errepassoan. Baina galera guztien errepassoak esperantza bihurtzen den premia batera darama poeta: berraurkikuntzaren sinesmenera.

15 urte eman ditu Letek poema libururik argitaratu gabe, eta orain, liburu plazan dela, ados dago bere lanaren emaitzarekin. “Ez dakit poema onak edo txarrak idatzi ditudan”, dio. “Baina badakit neure barruko egia agertu dudala, egiatia izan naizela eta hor ez dagoela betelanik, ez dagoela txorakeriarik. Horretaz ziur sentitzen naiz”.

“Berraurkikuntza” hitza aipatzen duzu liburu berriko poema askotan. Berraurkikuntzaren premia, nahia, ametsa... Zer litzateke berraurkikuntza hori zuretzat?

Nik behar handi bat sentitzen dut mundu honetan maite izan ditudan haiek nonbait, ez dakit non eta nola, berraurkitzeko; bereziki Lourdes [Lourdes Iriando, emazte zena]. Ideia horretan gero eta sendoago nago, eta neure burua behar horretan estutzen dut, edo esperantza horretan bermatzen. Nire lagun sinestun batek dioen moduan, berraurkikuntzarik ez dago mundu honetako bizipenak ez badu geroan irauten. Beste lagun batek dio ez duela haragiaren piztueran sinesten; hori ere plausiblea da. Orduan, zer da iraungo duena? Espiritua? Eta non kokatuko da? Zer itxura hartuko du? Aurki gintezke haiekin? Denak galderak dira, erantzun zehatzik gabekoak. Batetik, urteak dira berraurkikuntzaren behar hori sentitzen dudala, eta azkeneko hiru urte hauetan, Lourdes joan zenez geroztik, behar izugarria sentitzen dut; bestela, zer zentzu du honek guztiak? Bestetik, ordea, badakit ezin dudala berraurkikuntzaren modua ikuskatu. Hor bizi naiz.

Nolako izango den ezin ikuskatu duzun baina beharrezkoa duzun berraurkikuntza baten esperantzaz...

Bai, esperantza horretan bizi naiz eta esperantza horretan bizi nahi dut. Azken finean, neure buruari esaten diot berraurkikuntzaren esperantza horretan bizi banaiz berraurkikuntza hori gertatzen ari dela, egunero. Esperantza horretatik mintzatzen natzaio nire zain dagoenari. Gero azkenean porrot bat izango dela?

Hutsune bat? Hori ere gerta daiteke, baina sinestu nahi dut ezetz, ez dela izango porrot bat. Horixe da liburuko azken poemaren gaia.

Zure poema liburuak ez bezala, erlijioek berraurkikuntza molde aski zehatzak aurkezten, deskribatzen eta iragartzen dituzte.

Niretzako berraurkikuntzak ez du forma zehatz bat. Nik ezin diot forma zehatz bat eman. Erlijio katolikoaren dogmatika jarraituz, hori hilen piztueran gauzatuko dela sinestu behar genuke. Niri asko kostatzen zait hori kontzebitzea. Baina erlijiotik bakarrik al du berraurkikuntzaren itxaropenak zentzua eta plausibilitatea? Nik uste dut ezetz. Jainkoaren baitan sinesten ez duen arren berraurkikuntzaren posibilitatean sinesten duen jendea ezagutzen dut; espirituak ziurrenik bere izanguneak, bere jarraiguneak izango dituela diotenak. Nolanahi ere, berraurkikuntzaren gaiak zerikusit handia du erlijioarekin. Transzendentziarik ez badago, eta transzendentziari ez badiozu bide bat ematen, oso zaila da berraurkikuntzaren baitan sinestea, oso zaila da mundu honetatik haratago legokeen ezereen baitan sinestea.

“Eta zer, Jainkoa / otoitzekin eraikia / gure biluztasunean baizik ez bazina”, diozu poema batean. Lourdes Iriondori hil ondotik Urnietan egin zenioten omenaldian irakurri zenuen poemaren hasiera da.

Lourdes erietxean zela bisitatzetik etorri nintzen gau batean atera zitzaidan esaldi hori lehenik, eta gero poema etorri zen. Geure baitan dagoen galdera bati erantzungo lioke poema horrek. Sinestuna zer da? Sinestuna da Jainkoaren baitan sinesten duena, edo sinestu nahi duena, otoitz egiten duena, Jainko horri hitz egiten diona, eskatzen diona, Jainko horrekin solasten dena, eta Jainko horrekin –niri askotan gertatzen zaidan bezala– borrokan eta liskarrean dabilena. Sinestuna hori da, eta sinesmen mota horietatik Jainkoarekin mintza daiteke. Baina sinesmenik edo sinesteko gogorik ez duenarentzat, harreman horretan sartzeko gogorik ez duenarentzat, Jainkoaren arazoak ez du plausibilitaterik. Txorakeria bat da Jainkoa badela edo ez dela aldarrikapen publikoak egiten hastea. Hori dena azkenean erretorika da. Auzi hori da zuk aipatu duzun poema horretan planteatzen dudana: eta Jainkoa azkenean gure otoitzean baizik ez balego? Gero poemak jarraitzen du esplikatzeko Lourdes eta bion otoizguneak non izan ziren, eta nola otoitz egite horretatik gure bizitzan une oso bereziak sortu ziren.

Otoitza bera da, beraz, garrantzitsua.

Jainkoaren aldarrikapena teologiari eta filosofiari lotua dagoela dirudi, argudioei lotua. Baina nik uste dut ezetz. Azken finean, Jainkoa gure otoitz egin beharra baizik ez balitz, zer? Orain dela hogeitun bat urte pentsatu nuen hori lehen aldiz, Lourdes eta biok –bilakaera pertsonal luze baten ondoren– fede bizitzara itzuli ginenean. “Fededuna izatea zer da azken finean?”, galdetu nion neure buruari. Eta erantzuna izan zen: “Fededuna da otoitz egiten duena”. Ez baduzu otoitz egiten, ez bazara mintzatzen haratago legokeen horrekin, fedea ez du zentzurik. Hori fede kontzeptual edo erretoriko hutsa litzateke.

Ikuspegi hori apurtzailea edo are heterodoxoa izan daiteke zenbaitentzat.

Nik uste dut Eliza Katolikoak –Eliza Katoliko ofizialak behintzat– Akinoko Santo Tomasek Jainkoaren existentzia frogatzeko erabiltzen zituen argudioei lotuegia jarraitzen duela, neurri batean. Hori dena azken batean fedetik abiatuta sor daitekeen egitura intelektual bat besterik ez da. Ezin da enpirikoki frogatu Jainkoaren existentzia. Kantek egin zuen Akinoko Santo Tomasen argudioen refutazioa, galdera bat planteatuz, Urnietan bizi zen mutilzahar bati behin entzun nion galdera berbera. Honako hau esaten zuen mutilzahar horrek: “Dena egin zuen bat ba omen da: Jainkoa. Zergatik denak behar omen du norbait egiten duena. Eta bera zeinek egin zuen?” Kausalitatea behar baldin bada, eta den orok kausa bat behar baldin badu, zergatik asmatzen dugu gero kausarik behar ez duen norbait, Jainkoa? Nik uste dut ez dagoela Akinoko Santo Tomasen frogekin ibiltzerik.

Poesia otoitz modu bat da, “otoitz etsiperatua”, poema liburuarekin bateratsu kaleratu duzun *Poesiaz gogoeta bat* (Pamiela) saiakera laburrean diozunez. Zure poemek asko dute otoitzetik.

Poesia otoitz bat da, batzuetan transzendentea, Jainkoari bideratua; eta beste batzuetan geure izateari eta geure iraganari egiten diogun otoitz minberatua, mingarria askotan. Liburu honetako pometan iraganera begiratu dudanean alde onak ikusi ditut, baina baita iluntasunak ere, penak eta batez ere kulpak; liburu honetan asko dago horretatik. Horretaz mintzatzen naizenean, balirudike barkamena eskatzen ari naizela, eta hori azken finean otoitza da.

Kulpa aipatzen duzun poemek erakusten dutenez, ez zara atzera begiratzean inolako damurik sentitzen ez dutenetakoa.

Ez, ez naiz horietakoa. Bada kulpak, damuak eta horrelakoak aipatzerik nahi izaten ez duen jendea. Imanol kantariak *Mea kulparik* ez diskoa kaleratu zuenean, nik, adiskideak ginenez, xuabe-xuabe galdetu nion ea zergatik jarri zion izenburu hori. Esan zidan norberak bere instintoekin, bere joerekin eta bere sentimenduekin leial jokatu behar duela, horrek ekar ditzakeen ondorioengatik errudun sentitu beharrik gabe. Nik konprenitzen dut pentsakera hori, baina uste dut erresponsableak garela, neurri batean libertatea ere badugula, eta horrenbestez egin dugunaren eta hartu ditugun erabakien erantzukizuna, geure buruaren aurrean behintzat, badugula. Ez dut esaten erantzukizun hori izan behar dugunik Jainko juzgatzaile baten aurrean, edo nola edo halako moralitate baten aurrean, baina bai geure buruaren aurrean. Eta geure buruaren aurrean baldin baditugu exigentzia horiek, kulpak eta damuak ere badira. Behintzat nire bizitzan. Dena zuzen egin duela iruditzen zaion hark ez du damutu beharrik. Nik badakit nire bizitzan gauza asko ez ditudala zuzen egin. Nola ez dut ba horren damua eta horren kulpa sentituko?

Maitasuna da liburuko poemen gai nagusietako bat. Liburuaren aurkezpenean hiru maitasun mota bereizi zenituen: pasionala, urratua eta erabatekoa; eta azkenekoaren alde mintzatu zinen.

Poemetan gauzak modu sintetikoan adierazi behar direla esan nuen aurkezpenean, narrazioetan baino modu sintetikoagoan. Eta adibide moduan aipatu nuen Leon Tolstoiren *Ana Karenina* nobela, hor agertzen diren ideia batzuk agertzen baitita nire poemetan, baina askoz laburrago emanak, askoz modu sintetikoagoan. Maitasun pasionalaren ondorioz, Ana Kareninak senarrarekiko eta bere umeeekiko harremana urratzen du; gero jabetzen da hasierako maitasun hura laxotzen ari dela, eta orduan maitasun etsiperatua edo desesperatua ezagutzen du. Nobelan maitasun horrek ez du erredentziorik, eta Ana Kareninak bere buruaz beste egiten du. Aurkezpenean, nik azaldu nuen badela beste maitasun mota bat, maitasun erabatekoa.

Zer da maitasun erabatekoa?

Maitasun erabatekoa ez da plazer edo erotika hutsa –hortik ere baduen arren–, sufrimenduaren ondoren datorren zerbait baizik. Nik horrela sinesten dut. Bi pertsonaren arteko maitasunaz ari garela, niri maitasuna zer den definitzeko eskatuko balidate, nik honako hau esango nuke: “Elkarrekin asko sufritu ondoren bi pertsona erabateko eta betiko loturara eramaten dituena”. Bilakaera psikologiko eta moral konplikatu baten ondoren datorren maitasuna da, leialtasunaren berraurkitzea, solidaritatearen maitasuna, urradurarik gabeko maitasuna. Batzuek kontra egiten didate; esaten didate maitasunaren oso ikusmolde sublimatua eta sufritzailea dela hori. Baina nik horretan sinesten dut eta hori bizi dut. Orain dela gutxi, bileratxo batean solasean ari ginela, lagun batek honako hau esan zuen: “Maitasuna ez da 25 urteko neska gazte lirain bati maiteminduta gauzkala esatea. Maitasuna da zahartzen ari den 70 urteko emakume bati maite duzula eta berarekin bizi nahi duzula esatea”. Jendeak barre egin zuen hori entzundakoan, baina nik uste dut pentsaera sakona zela.

Euskal Herriko gatazka politikoak ere badu islarik liburu berriko poemetan. Isla mingotsa, mingarria.

Vulnerant omnes atalean bi poema daude gai horrekin lotuak. Horietako batean Euskal Herriari edo nire jendeari mintzatzen natzaio, esanez ezin ditudala gehiago jarraitu, bukatu direla atxikimenduak... Euskal Herriko aldarrikapenei buruz egiten dudan gogoeta edo komentario kritikoa da, nahiko ezkorra, modu malenkoniatsuan egina eta, nire ustez, oso gogorra zati batzuetan. Beste poema oso zehatza da: ez dut izenik jarri, ez dut siglarik jarri, baina argi dago nori buruz ari naizen. Norbaitek galde diezadake ea zergatik sartu naizen horiekin.

Zer erantzungo zenioke hori galdetuko lizukeenari?

Nik uste dut eskubide osoa dudala gudu kantuetan dabiltzan horiei esateko gudu kantuen garaiak bukatu zirela, behintzat beraiek ulertzen dituzten moduan. Gainera, esaten dutenez, egiten ari diren hori gure izenean ari dira egiten. Eta gure izenean ari direla diotenez, nik poema hori idatzi beharra neukan –nahiz eta jakin poema horrek mina emango diola zenbaiti–, horiei ezetz esateko, ez direla Euskal Herriaren izenean ari, ez nire izenean behintzat, eta ezta beste askoren izenean ere, beren lanbroetan trabatuak baizik. Poema gogorra da, baina azken finean malenkonia handi bat du poema horrek ere,

amaieran diodanarekin: “zer esan dezake hilotzak”. Honako hau esango banie bezala: “Zuen taldea sortu zenean nik 15 urte nituen. 65 urte kunplitzera noa. Beti istorio berdina ikusten dut: beti aldarrikapen berberak, beti ustezko estrategia izugarria, beti ekintza gogorak. Eta... zertarako? Ni hiltzera noa. Zer nahi duzue esatea? Pozik noala mundu honetatik zuek egin dituzuenak ikusi ondoren, eta zer lortu duzuen, alegia ezer ez? Ez, ez noa pozik. Bizitza ozpindu didazue, bizitza erremindu didazue. Ezin dizuet esan oso pozik noala. Esan behar dizuet egia. Eta azken batean, zer esan dezake hilotzak?”. Amaiera hori Luis Cernudaren poema batetik hartua da. Horixe esan nahi diet, ez nagoela ados. Ez nagoela ados eta gainera bakean hil nahiko nukeela, beste jende askok nahi izan duen bezala, eta ez dugula lortuko bakea, hor segituko duela istorio horrek. Gudu kantuetan ari dira izugarrizko guda gloriatsuan ari balira bezala, eta ez dira konturatzen beren burua iraintzen, laidotzen eta zikintzen ari direla. Ez dago glorifikaziorik.

Ez zaude, beraz, Euskal Herriko egungo errealitate politikoarekin oso gustura...

Errealitate politikoarekin baino gehiago, biolentziaren errealitatearekin nago mingostuta. Errealitate politikoarekin errespetuduna naiz. Errespetatzen ditut politikak eta politikariak, baina errespetatzen ditut distantzia batekin. Nik argi dut, aspalditik, idazle baten lana –poeta batena, kantari batena...– eta politikari baten lana oso lan desberdinak direla, oso abiapuntu desberdinetatik abiatuta egiten dutela lan batak eta besteak, eta oso irizpide desberdinekin. Ni nire bizitzaren zentzu filosofiko edo existentziala bilatzen saiatzen naiz, harremanekiko egitasun bat, eta politikariek beste helburu batzuk dituzte: onizate kolektiboaren gauzapena, horretarako egokiak diren programak eta egitasmoak; eta horretaz gain politikak barruko mila katramila eta gatazka ditu, askotan oso itsusiak, eta gure artean fintasun gutxikoak, zakarrak. Alde horretatik politikari buruz hotz sentitzen naiz. Baina beste fenomeno bat ere gertatzen da, Euskal Herrian bereziki, gutxi garelako: kolean egiten dugu topo denok: kantariak, poetak, politikariak eta igeltseroak. Nik errespetu pertsonala diet politikariei, eta baita instituzionala ere.

Beraz, politikariak ez ezik erakundeak ere errespetatzen dituzu.

Nik sinesten dut erakundeen baitan. Erakundeak beharrezkoak dira, hamar mila programa gauzatzeko, eta gizarte bat kudetatzeko eta gidatzeko, gizarte baten zutabe material eta egiturazkoak jartzeko. Hori gizarte honetan zein beste batzuetan erakunde politikoek egiten dute, Estatuak egiten du. Nik ez dut sinesten politikariak ustel eta ergelak direnik. Gertatzen dena da politikak bere *tempo*-ak eta bere koordenadak dituela, eta batzuetan oso mingarriak dira horiek. Nik errespetuz begiratzen dut politikarien mundua, nahiz eta kritikoa izan, nahiz eta jakin ni ez nagoela hor, ni beste abiapuntu batetik hasten naizela gauzak begiratzen, sentitzen eta esplikatzen. Metodologikoki eta estilo nahiz edukien aldetik, oso ezberdinak dira politikari baten lana eta nirea. Hala ere, elkarrizketa batera eta adostasun batera iristea badago, nahiz eta hori ez den askotan gertatzen.

Politikan ere aritua zara, aspaldi, urte batzuetan. Gipuzkoako Kultura diputatu izan zinen.

Han ikusi nuen oso zaila zela mundu hori. Niretzat bi mundu oso diferente dira. Eta hura bukatu zenean pentsatu nuen lehengo lekura itzuli behar nuela. Politikan aritzen zen jendeari erreparatuta, konturatu nintzen zeinen konplikatua zen politikarientzat beren borondate ona emaitzetan gauzatzea, zeren politikak bere *tempo*-ak eta bere erritmoak ditu, eta oso konplikatua da.

Euskal Herria maitasun eta sufrimendu iturri izan da beti zure kantu eta poemetan.

Neure buruari galdetu izan diot bai-eta-ez hori ez ote den erretorika inpostatu bat, faltsua. Egia da Euskal Herriak bere manifestapen askotan eta izate modu askotan mintzen nauela, eta kosta egiten zaidala eramatea eta jasatea. Baina beste alde batetik maite ere maite dut, eta pentsatu izan dut nik kritikatzan ditudan iluntasun, zakarkeria eta torpezia horiek nire baitan ere egon litezkeela. Azken bolada honetan zuhurragoa eta errukitsuagoa naiz. Beti izan dut nire kantuan eta nire poesian, kantuan batez ere, bai-eta-ez hori: “Ardo mindua edanaz historiaren tabernan” eta gauza horiek. Figura erretorikoak dira baina badute zerikusia errealitatearekin. Euskal Herriaren azken hamarkadetako bilakaera oso baikorra izan da arlo askotan, asko hobetu delako gure bizitza –ez bakarrik materialki, kulturalki ere bai–, baina gure adinekook ardo mindu asko edan behar izan dugu, oso egoera gogorak bizi behar izan ditugu, oso zailak. Batasunaren, kideatasunaren, solidaritatearen aldeko aldarrikapenak ezagutu nituen nik 20 urte nituela, eta gero beti ikusi izan dut dena dela puskaketa, haustura, krisia. Hemen bi edo hiru ataletatik ez da atal berri bat sortzen; batetik hiru sortzen dira, puskaketaren erruz. Horrek min handia eman izan dit, eta euskal gizartearekin mesfidati bizi izan naiz arlo askotan. Hemen jendeak baditu usadio onak, gizatasun handikoak, baina baita txarrak ere. Gorrotorik ez diot inoiz izan Euskal Herriari, baina deitorapen edo distantzia apur bat bai aldizka.

Maitasun etsiperatu bat ...

Nik bi esparru bereizi izan ditut. Batetik aberriaren maitasuna dago, norberaren arbasoen sorterrria maitatzea modu poetiko batean, azken finean abertzaletasuna, nire ustez, poetika bat baita. Abertzaletasunak hiru gauzagune edo hiru momentu ditu: ohartzea, hori baita entusiasmatzeko lehen urrats beharrezkoa; seinalatzea, alderdi bakoitzaren berezitasunei erreparatuz eta abar; eta, azkenekoa, adieraztea. Nik harreman hori horrela bizi dut. Bestetik, nazionalismoa deitzen dena dago, eta nik hori ez dut ondo eramaten. Nazionalismoa abertzaletasunaren inpostazio politikoa dela iruditzen zait. Funtsezko ideologia erabatekoetatik abiatzen da: “Nazio bat bada” du lehendabiziko deklarazio misteriotsua. Nazio bat bada, baina... zer da nazio bat, batez ere gaurkoa bezalako gizarte nahasi batean? Julio Caro Barojak dioenez, erromatarrentzat eta latinoentzat nazioa sorlekua baino ez zen. Eta nola mugatzen da sorlekua? Noraino iristen da? Nazioen ezaugarriak eta horiek guztiak onartzen ditut, baina eztabaidagarriak iruditzen zaizkit. Horretatik errebindikazio politikora pasatzen denean, ni hor gaizki sentitzen naiz. Nik

sinesten dut aberri bat dugula, arbasoen sorterrria. Horrekiko atxikimendua bada. Eta ni atxikitzen natzaio, eta miresten dut. Emozionatu izan nau. Gazte ginenean hara eta hona ibiltzen ginenean, txundituta bizi ginen. Deskubritu egiten genuen gure lurraldea eta horrek emozio handia sortzen zigun. Hori da niretzat aberria. Nazioa, funtsezko kategoria batzuei atxikitzen zaiena, eztabaidagarria iruditzen zait. Politikariek esaten dituzten gauza batzuk harigarriak dira: “Euskal nazioak baditu zortzi mila urte, kobazulotik dator, aurrehistoriatik”. Baina, aizu... murtzairrak nondik datoz? Murtziarrak ere aurrehistoriatik datoz. Ala gu bakarrik gatoz aurrehistoriartik? Gurea bakarrik da funtsezko izaera nazionala duen kolektibo baten tokia eta formulazioa? Kontzeptu gehiegizko horiekin ditut nik zalantza handiak.

Lourdes Iriondoz gain, beste hainbat adiskide eta maisu gogoratu eta omendu duzu liburuan.

Atal oso bat dago, poema multzo txiki bat, *Joan zirenei* izenekoa, hildako hainbati eskainitako poemaz osatua. Hortik aparte, poesia idaztearen harira hainbat omenaldi pertsonal etorri dira. Itxaro Bordari eta ifarraldeari egindakoa da omenaldi horietako bat. Itxaro Bordari eskaini diot poema, asko estimatzen dudalako, oso poeta fin eta sakona iruditzen zaidalako, eta ifarraldekoa delako. Poema hori ifarraldeari buruzkoa da. Poema horretan esan nahi izan diet ifarraldekoei gazte ginenean hurbiltzen ginela haiengana fede edo su handiago batekin, ingenuitate handiago batekin; eta orain, berriz, galeraren malenkoniarekin eta tristurarekin. Non daude gure egitasmoak? Non daude gure lehengo lagunak? Non dago gure lurralde sakratu hura? Hor dago, horregatik hurbiltzen naiz oraindik ere, baina beste aldarte batekin. Gehiegi gogoetatu gabe etorri zitzaidan poema, eta idatzi eta gero erabaki nuen Itxaro Bordari dedikatoria egitea, ifarraldeko poeta delako eta bere poesian galeraren hutsunea askotan adierazi duelako. Beste omenaldi bat Obabako lurraldeari egiten diodana da. Lau poemako atala da, *Obabako lurraldeari begira* izenekoa.

Bernardo Atxaga omendu duzu atal horrekin, nahiz eta haren izenik ez duzun aipatzen.

Poema horiek fisikoki –eta moralki ere– Obabari begira idatzi nituen. Obabako lurraldea Zizurkilgo hleritik ondo ikusten da. Lehen poema 2003ko abenduko arratsalde hotz eta argitsu batean idatzi nuen, eta hurrengo biak jarraian atera ziren. Azkenekoa, bereziki Bernardo Atxagari dedikatzen diodana –nahiz bere izena ez aipatu–, orain dela urtebete idatzi nuen, Lourdes hil ondoren, Obabako lurraldeari begira nengoela berriz ere, oso triste, oso eroria, oso puskatua... Poetarekiko maitasun kolpe bat etorri zitzaidan, eta era berean lurralde hura maite dudala sentitu nuen. Liburuko atal horrek maitasun eta errekonozimendu keinu bat egiten dio Bernardo Atxagari. Nik estima handia diot Atxagari, eta niri gauza asko aportatu dizkit. Atxagak esaten du literatura elkar kontsolatzeko dela, eta Atxagaren literaturak askotan kontsolatu nau ni, inteligentea delako, sentsibilitatea duelako eta gizatasunean bermatzen nauelako.

Zer leku du *Egunsentiaren esku izoztuak* poema liburu berriak zure poesia ekoizpen osoaren testuinguruan?

Poesiari dagokionez, nik uste dut azken hiru liburuetan nitaratu naizela batez ere, horietan sakondu dudala nire izatean eta nire pentsamenduan, nire barne egitura moral eta psikologikoan; horien aurreko liburuetan pixka bat galduago ibili nintzen. Nik uste dut poeta gisa *Zentzu antzaldatu*en poemategia-n hasi nintzela ni izaten, literaturan batzuetan egiten ditugun piruetak eta itxurakeriak alde batera utzita. Pentsatzen dut horrek heldutasun pertsonal batekin zerikusia izango duela. Bizitzak, onerako edo txarrerako, helarazi egiten gaitu. Nik adin bat badut eta zorionez garaiz etorri zait heldutasuna, edo heldutasunarekiko ustea behintzat. Gero *Biziaren ikurak* etorri zen, nire azkenaurreko poema liburua, duela 15 urte kaleratua. Liburu gogoetatsua zen; bazuen halako kutsu metafisikoa, filosofikoa, pretenziosoa ere bai beharbada, baina, modu abstraktu batean bazen ere, bizitzari buruzko gogoetak egiten nituen. Liburu horrekin eta liburu horretan esaten nituenekin nahiko ados nago. Liburu berrian, *Egunsentiaren esku izoztuak*-en, egongo lirareke, laburbilduta, bizitza baten esperientzia nagusi gehienak: bizitza, heriotza, maitasuna, urradurak, iraganen zeuden lurraldeak, biziguneak, bidaiak, udak... hori dena. Azken liburu honetan legoke galeraren zentzu bat. Bizitza galtzen dugu, maitasuna galtzen dugu, osasuna, lagunak, adiskideak, lurraldeak... Baina liburu honek ez zukeen biribiltasunik izango, eta ez dakit argitaratu ere egingo zen ere, azkeneko atala gabe. Duela 13 bat urte hasi nintzen liburu honetako poemak idazten, Obanosen egiten genituen udaldieko batean. Baina iruditzen zitzaidan ardatza falta zitzaiola, zentzu osoa emango zion zerbait, eta hori Lourdesen heriotzarekin etorri zen. Lourdes hil zenean, hasi nintzen gogoetatzen poesian adieraz ote nezakeen galera hori, eta neure buruari baietz erantzun nionean hor aurkitu nion buruari zentzua.

Liburuaren funtsezko atala da, beraz, *Neguan izan zen* izenekoa, azkenekoa.

Bai. Atal hori da, nire ustez, liburuaren ardatza. Liburuko poemetan pluralean hitz egiten dut, gutaz ari naiz, eta beti dago presente Lourdes. Artificio literario bat ere bada, baina hori psikologikoki gauzatzen da, liburuan, Lourdesen ausentzia fisikoarekin. Horrek eman dio tonua buruari, dena batzen duen tonua: interpelazio bat, galdekatze bat, hurbiltze bat... “zuk”, “esan genuen”, “ibili ginen”, “esan zenidan”, “erantzun nizun”... Metafisika baino gehiago, errelato txiki batzuk bezala egin nahi izan nituen. Heriotzari buruz eta galerari buruz gogoeta metafisikoak idatz daitezke baina pentsatu nuen bestelako zerbait egin behar nuela. Gainera, ez zitzaizkidan horrela atera, hurbileko zerbait bezala baizik. Zauri bat bezala. Zaurietatik odola eta pozoia ateratzen direla esaten dute. Eztia ere bai batzuetan. Goxotasuna eta garratzasuna. Azken liburu hau errebindikatzen dut neure buruaren alde. Ni buruari oso gustura geratu naiz. Baina ez naiz gustura gelditu jendeak hau edo hura esan duelako. Jendeak liburua zoragarria dela badio, hobe; baina nahiz eta mundu guztiak esan txarra dela ni gustura nengoke liburu honekin. Ez dakit poema onak edo txarrak idatzi ditudan, baina badakit neure barruko egia agertu dudala, egiatia izan naizela eta hor ez dagoela betelanik, ez dagoela txorakeriarik. Horretaz ziur sentitzen naiz. Askotan, bermatze moral hori norberarena da, barruruntz gauzatzen da.

Hitza “azken aingura, azken kaia” dela diozu poema batean. *Poesiaz gogoeta bat* saiakera laburrean, berriz, poesia “otoitz etsiperatu bat” dela. Zer da gaur egun poesia zuretzat?

Hizkera misteriotsu bat. Poesia izango litzateke, askotan esaten den bezala, inefablea, esan ezin dena esan nahi izatea. Eta zer da esan ezin dena? Bizitza, eta bizitzaren zama. Nire ustez, hitzek ez dute bizitza erredimitzen, baina ahalegin bat egin behar dugu, eta egiten dugu, hitzen bitartez gure bizitza argitzeko, eluzidatzeko, esplikatzen. Geronentzat eta albokoarentzat, hurkoarentzat. Hori da poesia. Poesia da bizitzaren esperientzia batzuk bere argi, iluntasun, gozo, garratzasun guztiekin laburbiltzen saiatzea, hitzetara eramatea, eta hori modu ahalik eta dotoreenean literarioki esatea. Askotan gertatu izan zait normalki hizketan ari naizela esateko kapaz ez naizen gauzak –bestela sekula ere esango ez nituzkeenak, ez zaizkidalako ateratzen– neure baitan sortzea hitzekin, esaldiekin eta irudiekin, gauerdietan-eta poema liburu hau idazten, amaitzen eta orraztatzen jardun dudanean. Orain horiek irakurtzen ditudanean neure buruari galdetzen diot, harrituta, ea neuk idatzi ditudan. Idatzi dudan hori ulertzen dudala iruditzen zait, baina beste alde batetik zerbait misteriotsua ere badagoela hor, ezin dudana erabat neuraganatu edo kontrolatu. Poesiak misterio puntu bat ez baldin badu, ez baldin badu poetak zantzutu duen zerbaiten usna guztiz heldu gabea, poesia misterio faltan geratzen da, nahiz eta misteriorik gabeko poesia ere izan daitekeen interesgarria beste arrazoi batengatik.

Zuk diozun hori bat dator *Poesiaz gogoeta bat* saiakeran diozunarekin:poesiaren hizkerak “hizkera arnastuak” direla. Ez zaude ados inspirazio poetikoa ukatzen dutenekin.

Nik sinesten dut inspirazioaren baitan, Zentzu ezberdinak ditu inspirazioak. Zer da inspiratua egotea? Inspiratua egotea da airean ibiltzea, ero-ero? Ez, ez da hori. Inspiratua egotea da hitzak nonbaitetik jasotzea, ez dakigu nondik. Gure baitan leudekeen hitzak baina galduak, ezkutuan daudenak, normalki esaten ez ditugunak. Poesia idazten hasten garenean hitz horiek datozkigu. Nik esan izan dut hitzak erabiltzen ditugula baina ez direla gureak, ezin ditugula gure ondare bihurtu. Nonbaitetik datozkigu. Batetik, gure herriaren kolektibotik eta historiatik datozkigu, hizkuntza eta hitzak jaso egin ditugu. Bestetik, nik sinesten dut arnasa edo inspirazio hori nonbaitetik datorrela, ez dela kasualitatea hitzek argitzen gaituztenean hala izatea eta hurrengoan iluntasunean egotea. Jendeak esaten du inspiraziorik ez dagoela, baina orain modan jarri da –Euskal Herrian idazle bat baino gehiago da horren adibide– honako hau adieraztea: “Nik ez dut poesia utzi, poesiak utzi nau”. Egia da hori. Poesiak utzi egiten gaitu. Nik bolada luzeak ematen ditut poesia idatzi gabe, eta bolada horietan, saiatuta ere, nik ez nuke lortuko lerro bakar bat ere idaztea; gero etortzen zait argigune bat, edo inpultso bat, behar bat, ez dakit zer den, eta orduan datozkit hitzak. Hori beti hala izan da.

Ez duzu, beraz, modu metodiko edo sistematikoan idazten, bulkaden arabera baizik.

Badira hori egiten dutenak, baina ni ez naiz poesia egunero idazten dutenetakoa, modu jaraituan eta metodo batekin. Nik poesia idazten dut: batetik, benetan barruan esateko zerbait dudala sentitzen dudanean; eta bestetik, hitzak datozkidanean, hitzak ez badatoz alfer-alferrik baita. Batzuetan topikotzat hartu izan dugu, baina Orixek *Euskaldunak* poemaren hasieran idatzi zuen hura ez da txorakeria: “Zatozkida goi-arnas / egizu nerekin lan”. Nonbaitetik datorren goi-arnasa beharrezkoa da poesian.

Egileak ezin du, beraz, poema guztiz kontrolatu.

Ez, ezin du. Ez dakit nobela baten kasuan nola den, nik ez baitut sekula nobelarik idatzi. Joan Mari Irigoienek esan zion Hasier Etxeberriari, *Sautrela*-n, nobelak ipurdiarekin idazten direla, lan asko eginez, eta ziurrenik hala izango da, nobelak lan jarraitua eskatzen duelako. Nobela batean elementu asko daude eta guztiek osatzen duten arkitekturaren koherentziari eutsi behar dio egileak. Baina poesiaren kasua oso bestelakoa da.

Irakurketek izan dezakete eraginik poetaren hizkera arnastu horretan. Zer iarkurtzen duzu zuk gaur egun?

Irakurketak asko aportatzen dio idazleari. Hala esaten bada ere, ez dago inor autodidaktarik. Dakigun guztia nonbaitetik ikasten dugu. Eta poesia idazten dugunean, edo beste edozer gauza idazten dugunean, geronen esperientziatik jasotako atalak izango dira, baina irakurri ditugunetatik jaso ditugunak ere bai. Eta ez beharbada imitatu ditugulako, baizik eta, Atxagak esaten duen moduan, besteren idatzietan zerbait esanguratsua aurkitzen dugunean bermatuak sentitzen garelako. Askotan esaten diogu geure buruari: “Hau nik pentsatua neukaan, eta sekula ez diat jakin esaten”. Edo bestela: “Intuizio hau banian”. Orain dela 2.400 urte esan zuen hori Platonek, Sokrates hil aurreko azken solasetan. Platonek dioenez, zerbait deskubritzen dugunean hori lehenago ere bagenekielako irudipena izaten dugu; zerbait hori, geu ohartu gabe, geure baitan gordea genuelako irudipena. Nik uste dut gure baitan badaudela horrelako ondareak, eta askotan irakurtzen dugunetik argitzen zaizkigula bizitzari buruzko gure ikuspuntuak. Ni elikatzen naiz irakurketatik. Poesia asko ez dut irakurtzen, ez naiz egunero poesia irakurtzen dutenetakoa. Baina boladak izaten ditut, eta boladan sartzen naizenean gustura aritzen naiz eta asko irakurtzen dut. Poesia irakurtzeak manifestatzen edo agertzen dizun beste gauza bat da jendea –denok eta bakoitza– oso bitxiak garela. Denok ditugu arazo berdintsuak, baina esateko moduak eta bizitzeko moduak, eta norberaren esperientziak izan dituen kokaguneak, gauzaguneak, pasarteguneak... horiek denak oso partikularrak dira.

Ez duzu izenik aipatu.

Nire gaurko poeta maitatuetako batzuk lehendik zetozen. Beste batzuen kasuan, azken urteetan hurbildu naiz haiengana; lehenago irakurriak nituen gehienak baina arreta handiegierik eskaini gabe. Poema estimatuak nire espirituan legokeena beraiek ere esan dutelako? Rilke izango litzateke bat, oso gustukoa dut. Duela 20 bat urte deskubritu nuen eta txundituta utzi ninduen; erreferente bat dut Rilke. Katalanen munduan bi erreferente nagusi ditut:

intelektualki Carles Riba, eta poeta gisa Salvador Espriu. Espainoletatik, asko irakurtzen ari naiz azken urteetan Urrezko Mendeko poesia: Gongora, Garcilaso de la Vega, Quevedo...; poesia horrek ere asko eragin dit, bai formalki eta bai pentsamenduaren aldetik. 27ko Belanaldiko poetek ere badute eraginik niregan, Luis Cernudak batez ere, asko gustatzen zaidan poeta baita. Italiako poesia ere bai, jakina, Giuseppe Ungaretti eta Cesare Pavese batez ere. Denbora daramat Dante Alighieriren *Divina Comedia* irakurtzen; dirudien baino konplikatua da, eta interesgarria oso. Petrarcaren sonetoak ere irakurtzen ditut... Baita XIX.mendeko literatura errusiarra ere –inoiz izan den literaturarik koherente, indartsu eta liluragarriena seguru asko–, eta XX.mendeko errusiar poeta batzuk: Anna Akhmatova eta Marina Tsvetaeva oso interesgarriak dira, izugarriak... Eta beste asko... Denetik. Baina denetik esaten dugunean, gezurra esaten ari gara. Hainbeste poesia interesgarria idazten da munduan! Edmund Wilson kritikariak Puxkinen *Eugenio Onegin*-i buruz idatzitako saiakera irakurri nuen duela gutxi; eta Nabokovek ere badu Puxkini buruzko saiakera garrantzitsu bat. Eta esaten diot neure buruari: “Nik Puxkin, ordea, ez diat sakon irakurri, pulamentuzko itzulpen bat ere ez diat-eta eduki sekula!”. Gauza asko eskuetatik kanpo geratzen zaizkizu. Ez zara sekula ailegatuko. Ni gainera oso kaotikoa izan naiz beti irakurtzen.

Euskal literaturako klasikoak irakurtzen –edo berrirakurtzen– dituzu? Horien eraginik ba al da liburuan?

Ez da ahaztu behar hori, jakina. Azken liburuan badaude oihartzun eta isla batzuk. Lapurreta nabarmen batzuk egin dizkiot Lizardiri: Juan Mari Lekuonari dedikatzen diodan poema Lizardiren *Agur* poemaren antzaldatzea da. Lizardi eta bere garaiko poetak oso garrantzitsuak izan ziren guretzat, eta orain dela urte batzuk baino gehixeago errespetatzen dira orain, zorionez. 16 urte nituela hasi nintzen ni Lizardi irakurtzen, eta ez nuen tutik ulertzen. Baina gero 30 urterekin edo hartu nuen berriro eta hunkitu egin ninduen; oso gustukoak ditut bere lan batzuk, eta kantatu ere egin ditut. Orixeren barne-poesia ere oso ona da. Gure aitzindariak izan dira horiek.

***Abestitzak eta poema kantatuak* (Elkar, 2006) liburuaren sarrera oso zeure sentitzen omen duzun Cesare Paveseren aipu batekin amaitu zenuen: “Izan zen gizon bat / saiatu zena, / baina ez zuena asmatu”. Kanpotik begiratuta, ordea, esan daiteke “asmatu” duzula, gauza batzuetan behintzat: zure lan batzuk indar handiz eta sustrai sendoz iritsi dira jende askorengana.**

Hori bai, hori egia da. Orain dela gutxi esan dit Ez dok Amairuko adiskide batek batzuetan oso modu inprudentean mintzatzen garela gure iraganaz, oso autokritikoak agertzen garelako, eta ez garelako konturatzen zenbateraino izan ginen jende askorentzat erreferentea. Liburu berriaren aurkezpenarekin nabaritu dut hori, bai Iruñean, bai Durangon... Jendeak askotan agertzen dit Ez dok Amairuk egindakoagatik esker ona, esanez euskalduntzen, esukalzaletzen, euskara ikasten eta gure aberriarekin bat egiten lagundu geniola. Eta hori egia da. Urte zailak ziren, egin genuen ahal genuena, eta uste dut ondo egin genuela. Baina neuk egin dudana lan pertsonalari, batez ere kantari gisa egindakoari, ikuspegi autokritiko batez eta jendeak pentsa dezakeenetik

haratago begiratzuz gero, nik ikusten dut ahaleginak badaudela, asmoak eta ambizioak badaudela, baina gero lortu dudana hura beti txikiagoa geratu dela.

Sortzaile askok dute sentimendu hori.

Nik behintzat badu sentimendu hori. Gainera, egia da kantuaren lanean bereziki menturan sartu nintzela; ez zen gauza deliberatu bat izan. Destrebetasunaren eta baliabide gutxirekin lan egin izanaren kontzientziak badu bere eragina asmatu ez izanaren sentimendu horretan; ahaleginak egin bai, baina emaitza eskas samarra ez ote den izan. Pavesek bere buruaz beste egin zuen, 42 urterekin. Strega saria eta beste hainbat zituen irabaziak ordurako, oso goraiatua zen, baina hala ere bere egunkarietan dio sekulako hutsunea sentitzen duela. 42 urterekin maila horretara iritsitako gizonak bere buruaz iritzi hori bazuen, saiatu egin zela baina asmatu gabe... Neuk ere horrelako zerbait sentitzen dudala jabetu nintzen, eta horregatik sartu nuen zuk hizpidera ekarri duzun esaldi hori liburu hartan. Esan izan didate Paveseren esaldi hori oso erretorikoa dela, ez duela norik bere burua hainbeste biluztu behar. Baina nik deklarazio hori egiteko beharra nuela sentitu nuen. Jendearen aurrean biluzterakoan izaten da egia bat esatearen beharra ere. Horrek, gainera, harreman estua du asko kezkatzen nauen beste gai batekin: garailetzarekin. Niri garaileak gero eta gutxiago gustatzen zaizkit. Garaileen kontu hori azkenean fikzio bat dela iruditzen zait. Zer da garaile izatea? Zein da garailea?

Gizartean, ordea, garaileak indarrean daude.

Pertsona batek gizarte batean lan asko egin badu, emaitza onak lortu baditu eta emaitza horiek gizartera proiektatu badira, modu saiatu eta baikor batean, horrek mihasmena merezi du. Baina garaile izatea... Garaile bati norik esan diezaioke: "Garaipenaren une gloriatsuan zaude eta horrela jarraituko duzu"? Denok gara oso hauskorrak, eta garaile izatetik galtzaile izatera oso urrats txikia dago: gerta daiteke gaixotasun bat, porrot afektibo bat; gerta daiteke gizarteak berak bizkarra ematea; gerta daiteke zahartzaroa... Komunikabide friboloetan –eta ez hain friboloetan– emakume artista dotore eder oso erakargarriak ikusten ditudanean, pena eta beldurrezko dardara bat sentitzen dut haiei begira, eta neure artean pentsatzen dut: "Zuk, edozein egunetan, begiratuko diozu zeure buruari eta beldurra ematen dizun zerbait aurkituko duzu: gaixotasun bat, zahartzaroaren arrastoak...; edo urradura afektibo bat sufrirituko duzu ustegabe, mundu guztiak maite behar zintuela pentsatu eta zeuk gehien desiatzen zenuen hark bizkarra ematen dizula jabetzean". Garaileek pena sentiarazten didate. Garailetzaren kontu horretan ez dut sinesten, probisonala baita beti.

Zeuren ez zara inoiz garaile sentitu?

Bai, neuk ere sentitu izan naiz garaile une batzuetan; ez askotan. Kantaldi biribil baten ondoan jendeak maitasuna adierazten dizunean garaile sentitzen zara, Jainkoa bezala. Baina handik hiru minutura oholtzatik jaitsi, zigarro bat erre, tresnak biltzen hasi eta ez zara ezer. Bukatu da garaipena. Garaipena oso hauskorra eta denbora gutxikoa da. Horri buruz oso gauza polita esan zuen behin Miguel Indurain txirrindulariak. Laugarren edo bosgarren Tourra irabazi

zuenean, galdetu zioten ea zer sentitu zuen Eliseo Zelaietako podiumean jendea txaloka eta komunikabide eta autoritate guztiak berari begira zituela; eta Indurainek erantzun zuen kosta egiten zitzaiola txalo haiek berarentzat zirela sinestea, txalok irrist egiten ziotela iruditu zitzaiola, atzera begiratzeko gogo sentitu zuela txalok beste norbaitentzat balira bezala. Nik ere sentsazio berbera izan dut inoiz txalok jasotzean, eta oso adierazpen inteligentea iruditu zitzaidan Indurainena. Garaipenaren momentua ezin da atxiki gainera, joan egiten da. Nobel saria ematen badizute ere, biharamunean ohetik jaiki eta zure aje, akats, kezka eta beldurrekin egingo duzu topo.

Ez dok Amairu taldearen bidez bide berriak zabaldu zenizkioten euskaraz sortutako kulturari duela 40 urte. Zer iritzi duzu euskal kulturaren egungo egoeraz?

Euskaraz egiten den kulturaren adierazpen batzuk krisian daude, diskografiarena adibidez, baina ez dira barne krisiak, teknologiaren berrikuntzek ekarritako krisiak baizik. Ez dago sinesterik ere nondik abiatu ginen, nolako eskastasunetik, eta nora ailegatu garen. Hori hala da, eta merezimendua eta meritua denona da, gizartearena berarena, euskaldunak ezer izan bagara egoskorrak izan garelako, eta saiatu garelako modu batean edo bestean; batzuetan nahiko oker, batzuetan bide txarretatik, baina saiatu egin gara, eta lortzen ari gara ari gara plausibilitate oso gutxi, etorkizun oso gutxi zeukan kultura aurrera ateratzea. Erakundeek ere asko lagundu dutela uste dut, zuzenki nahiz bazter bidetik. Gure aurrekoek, Juan Mari Lekuonak eta horiek, ez zuten inondik ere uste euskara iritsi den lekura iritsiko zenik. Pentsatzen zenaren kontra, euskarak loratze handi bat izan du, sekula bere historian izan ez zuen neurrikoa. Nahi ez dutenek ez dute aitortuko, baina euskal kultura askoz hobeto dago orain duela 40 urte baino. Askoz gauza gehiago egiten da, emaitzak ugariagoak dira, aberastasun bat dago, eta batez ere lehen ez zegoen kultura maila bat dago. Gaur idazten duen jendea jende ikasia da, eta autodidakta baldin bada asko irakurria. Hori lehen ez zen hainbeste gertatzen. Euskara kinka larrian dagoela esaten dute. Kinka larrian? Kinka larrian lehen zegoen, ez zegoenean ezer. Gaur kinka larrian ez, gaur kinkan dago. Hori bai: erronkak ditu, desafioak, oso konplikatuak.

Adibidez?

Teknologiarena izango da bat. Idazten jarraituko dugu, baina... argitaratzen? Diskografiarekin zer gertatzen ari da? Krisi bortitza dago hor. Teknologia berrietara egokitu behar dugula esaten dute, baina horrek zer estilo ekarriko ditu? Mantenduko da literaturaren hurbiltasuna, idazlearen eta irakurlearen arteko harreman hurbil hori? Esparru berri horietan, argitaletxeek eutsiko al diote ia denek 40 urte hauetan izan duten lehiakortasunari, suari, entusiasmoari? Ni zaharra naiz, eta konprenitzen dut nire ikuspuntuak zahar batenak direla. Bentzutua sentitzen naiz gai honek bizitzan nahiko baldar harrapatu nauelako, eta ezingo naiz lanturuetan eta negarrean hasi, gazteak heziketa hori jasotzen ari baitira. Internetek eskuetan jartzen dizkigun baliapideak begien bistakoak dira, hor aurrerapauso handia eman da. Baina Interneti alde txar bat ere ikusten diot, oso gertu ditudan gazteei erreparatuz. Internet sorgin misteriotsuaren kobazuloa bezalakoa da. Hor sartu eta ez dakizu

zer norabide edo zer susto aurkituko dituzun. Jolasteko gauza asko dago Interneten. Kriterio intelektual, kultural, gizartekoi eta etiko sendoekin hezi ez den jendea galdu egingo da tresna hori erabiltzean, ez du jakingo zer den garrantzitsua eta zer ez. Oso ondo dago entziklopediarik ez duzula behar esan, eta Wikipediara jotzea. Milaka eta milaka sarrera aurki ditzakezu hor. Baina Wikipedia erabiltzen duenak ez badu kriteriorik, ez badaki hortik zer den berari, bere espirituari, dagokiona, orduan zer?

Liburua aurkeztean Jose Angel Irigarairi eskerrak eman zenizkion, haren ekimenik gabe beharbada liburua ez zela aterako esanez. Idazle gisa, baduzu kezka eta iritziak partekatzeko lagunarte bat, ingurune bat? Ala piztia bakartia zara poeta gisa?

Ez, ez dut halakorik. Lagun batzuk urte asko daramagu elkarri esaten tertulia gisako bat egin behar dugula, eta parte hartu ere izan dut tertuliatxo batzuetan, baina ez, ez dut horrelako talderik edo lagunarterik. Nire bizitzan gertatu diren hainbat gauza ez dira lagungarri izan horretarako. Euskal literaturari buruz komunikabideen bidez eta adiskideek ahoz aho esandakoen bidez jasotzen dut informazioa. Ni hurbiltzen naiz euskal literaturara, baina konturatzen naiz ez dudala ez adinik ez gogorik ere ateratzen den guztia irakurtzeko. Ez naiz enteratzen. Pena ematen dit, eta batzuetan pentsatzen dut ofizio bat aukeratu behar banu euskal literaturaren kritikaria izatea aukeratuko nukeela: ateratzen den guztia irakurri eta sakon komentatu, eta komentatzerakoan azterketa konparatiboak egin, konparatista izan. Literatura guztietan egiten da hori, baina hemen sekulako pobrezia dago alde horretatik. Erreferente falta handia dago. Liburu asko argitaratzen da baina ateratzen dena ez da kokatzen ongi. Gustatuko litzaidake lan hori egitea, baina horrek bizitza oso bat eskatzen du, eta nik ez dut denborarik horretarako. Dena den, handik eta hemendik eskuratzen ditut liburuak, eta saiatzen naiz ahalik eta gehiena irakurtzen, edo bere garaian behar bezain sakon irakurri ez nituen idazleen lanak berrirakurtzen. Azkenaldian emakume poetak berrirakurtzen ari naiz bereziki: Aurelia Arkotxa, Itxaro Borda, Tere Irastortza... Horrela ibiltzen naiz, ezin ailegaturik baina ahaleginak egiten betiere.

Poesiaz gain, kantugintza izan da zure beste adierazpide publiko nagusia. Jarraitzen duzu abestitzak idazten eta abestiak egiten, ala erabat utzia duzu arlo hori?

Duela hamar urte eman nuen azken kantaldi serioa eta ez dut besterik emateko ez asmorik, ez abagunerik eta ez fakultaterik. Hori bukatu da eta ez dut uste beste ezer egingo dudarik. Ibiltzen naiz aldizka disko berri baten ideiarekin, baina... Hitzak idatzita daude, poemak idatzita daude, baina musika falta da. Eta hori dena egituratu egin behar da, produzitu egin behar da... Konplikatu da. Egiten baldin badut ere, grabazioa izango da, ez dut jendaurrean kantatzera itzultzeko inolako asmorik.

Zeuk jarriko diezu musika poema horiei?

Ez, ez. Badira ia 20 urte musikaren arazoa Karlos Gimenezen eskuetan utzi nuela. Batzuetan hori aurpegiratu izan didate, tatxa bat balitz bezala: "Hik

zergatik baztertu hituen herorren melodiak?” Erantzuna argia da: destrebea sentitzen nintzelako. Gaztea nintzenean banuen, izan nuen urte batzuetan, halako indar bat, inpultso bat, melodiak asmatzeko, baina gero hori agortu egiten da, eta musika arloko prestakuntzarik ez baldin baduzu lehenago agortzen da, erreferente melodikoak oso mugatuak direlako. Eta kito. Lehen aipatu dugun kontu hori, Paveseren aipuarena, saiatu arren asmatu ez zuen gizonarena, hori batez ere sentitzen dut egia izan dela kantuaren arloan. Nik badakit baditudala sei-zortzi kantu –edo asko jota hamar– nahiko txukunak, ondo eginak, beren burua defenditzen dutenak, baina beste asko hor geratu dira nahi eta ezinean. Literaturan formazio falta zuzendu daiteke irakurketarekin, baina musikan ezinezkoa da. Musikan formazio teknikorik ez izateak asko baldintzatzen du, asko mugatzen du. Harmoniaren funtsa ahotsen arkitekturaren edo bestela musika tresnen arkitekturaren datza, eta horren hizkera teknikoa ez baduzu menperatzen alferrik ari zara. Lourdesi ere gauza bera gertatu zitzaion. Lehen denboretan atera zituen kantuak, baina gero agortu egin zen, eta berak behar hori sentitzen zuen. Horretan ez genuen laguntzarik izan. Gure garaiko lan baldintzak halakoxeak ziren: bakoitza bere gitarrarekin aritzen zen ahal zuena egiten. Batetik, freskotasuna eta bat-batekotasun indartsua ekarri zuen horrek; baina, bestetik, muga handiak, eta ez genuen jakin muga horiek gainditzen. Gero, denborarekin, normal bihurtu zen musikari profesionalen baliatzea konposatzeko, harmonizatzeko, instrumentatzeko, kantaldietarako, grabazioetarako... Baina gure garaian ez zegoen halakorik. Nik horretan ez dut geure burua txalotzen. Ez dok Amairuren garaian eskasia horiek izan genituen eta ez genuen jakin horiei erremedioa ematen. Ez genuen planteatu ere egin arazoa.

Izan zenuten arrakastaren ondorioz beharbada?

Garai hartan sozialki arrakasta handia zuen guk egiten genuenak. Orduan bazirudien ez zela gehiagoren beharrik. Baina hemendik kanpora begiratzerakoan lotsatuta sentitzen ginen. Jendeak gauza bitxiak esan izan dizkit niri: “Hik zertarako behar duk formazioa, zertarako behar duk musikaren kultura? Hi bakarrik, gizona, gitararekin, salbaia-salbaia! Raimon bezala” Baina ni ez naiz Raimon! Edo bestela: “Brassens bezala”. Baina Brassensek oholtzara bi musikari bikain ateratzen zituen, eta haiekin aritzen zen beti, bai grabazioetan eta bai emanaldietan; gainera, frantses kultura osoa zuen inguruan. Hor akatsa izan genuen, eta nik hori minez bizi dut. Neronengatik baino gehiago beste pertsona batzuegatik. Beren ibilbidea behar baino lehenago bukatu zuten pertsonak izan dira Ez dok Amairun, eta baita geure bidea ongi egin ez dugunak ere. Gure kulpa ere badela? Bai. Beste batzuk baldintza berberekin hasi ziren eta ibilbide aberatsagoa egin dute, hornituagoa eta osatuagoa, Mikel Laboak adibidez.